

# 2018/19 IKASTURTEAN GRALA SOILIK MATRIKULATUKO DUTEN IKASLEEK EGIN BEHARREKOAK

## 1. 2017/18 ikasturtean UPV-EHUn MATRIKULA EGIN DUTEN ikasleak:

- a. MATRIKULA: aurreko urteetan bezala, uztailean automatrikula egiteko txanda emango zaie. Une horretan GRALA matrikulatuko behar da, derrigorrez.
- b. GRAL GAIAREN AUKERAKETA. Hiru aukera daude:
  - 2017/18 ikasturtean esleitutako gaia mantendu, tutorea ere ados baldin badago. Kasu honetan ez da izapiderik egin behar.
  - GAUREn bidez, gai proposamena egin, fakultateak [Gai proposamena nola egin \(pdf, 144.97 Kb\)](#) dokumentuan emandako jarraibideak kontuan hartuz. Epea, 2018ko martxoaren 12tik 18ra.
  - Fakultateak eskaintzen duen gai zerrendatik bat hautatu, uztailean matrikula egin ondoren GAUREn bertan.

## 2. 2017/18an MATRIKULA EGIN EZ DUTEN ikasleak

- a. MATRIKULA: [Ikasketei berriro ekiteko matrikula](#) prozedura jarraitu beharko dute. Fakultateko Web orrian azaltzen da, Idazkaritza atalean.
- b. GAIAREN AUKERAKETA. Hiru aukera daude:
  - 2017/18 ikasturtetik esleituta duen gaia mantendu, tutorea ere ados baldin badago. Kasu honetan ez da izapiderik egin behar.
  - Gai proposamena egin, 2018ko martxoaren 12tik 18ra. Matrikula ez duten ikasleek GAUREn sartzeko baimenik ez dutela kontuan hartuta, gai proposamena Idazkaritzan\* aurkeztuko da, [instantzia orokor](#) orriarekin batera. Proposamenean, [Gai proposamena nola egin \(pdf, 144.97 Kb\)](#) dokumentuan eskatzen den informazioa eman beharko da.
  - Fakultateak eskaintzen duen gai zerrendatik libre gelditzen direnen artean bat aukeratu, irailean.

Edozein kasutan, bai gai bat aukeratzeko eta bai proposatzeko, ezin da beste gai bat aurretik esleituta eduki GAUREn. Gaia aldatzeko, esleituta dagoenari uko egin behar zaio, GRAL GAIARI UKO prozedurak adierazitakoa jarraituz.

\*Bertaratuz edo e-mailez ([bi-iue.idazkaria@ehu.eus](mailto:bi-iue.idazkaria@ehu.eus)), instantzia orokorra, proposamena eta eskatzailearen NANren kopia atxikiz.